



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko irailaren 12a

99. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 10-22/PES-00206. Galdera, Larrialdietako zuzendaria, Nafarroan ekainaren 15etik 29ra bitartean gertaturiko baso-suteetarako ekintzak koordinatzeko izendaturikoa, egon zen lekuari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (4. or.).
- 10-22/PES-00207. Galdera, Nafarroan ekainaren 15etik 29ra bitartean gertaturiko baso-suteei aurre egiteko laguntza logistikoko taldeari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (4. or.).
- 10-22/PES-00208. Galdera, Nafarroan ekainaren 15etik 29ra bitartean gertaturiko baso-suteen aurka egiteko aireko baliabideei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (5. or.).
- 10-22/PES-00209. Galdera, baso-suteen aferan larrialdi-zerbitzuek dituzten ahuleziei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (6. or.).
- 10-22/PES-00210. Galdera, larrialdiei begirako suhiltzaileen efektibo operatiboetara eta errefortzuei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (6. or.).
- 10-22/PES-00211. Galdera, PLATENA ekainaren 15etik 17ra bitartean ez aktibatze erabakiari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (7. or.).
- 10-22/PES-00212. Galdera, ekainaren 16ko 222/2016 Foru Aginduak aurreikusten dituen debekuak, ohar laranja mailarekin, Nafarroako Erdialdeko abiadura handiko trenerako obretan aplikatzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (7. or.).
- 10-22/PES-00213. Galdera, G30005 G3500 6013 467903 REACT. NASERTICi eginiko enkargua. Nafarroako banda zabal korporatiboaren plana PO FEDER 14-20 partidari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (9. or.).
- 10-22/PES-00214. Galdera, helikoptero medikalizatua mobilizatzearen inguruan egindako aldaketei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (9. or.).
- 10-22/PES-00215. Galdera, Oinarritzko Osasun Laguntzarako psikologoak kontratatzeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (10. or.).
- 10-22/PES-00216. Galdera, Donezteben Arrizuriagako presak duen funtzionamenduari eta bertan uholdeak izatearekin duen loturari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (11. or.).

- 10-22/PES-00217. Galdera, familientzako elkarguneei buruzkoa. Isabel Aranburu Bergua andreak egin du (12. or.).
- 10-22/PES-00218. Galdera, Euskararen II. Plan Estrategikoaren abiarazpenaren atzerapenari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (12. or.).
- 10-22/PES-00219. Galdera, Osasun Batzordean, minbizia duten haurrentzako arretaren inguruan onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (13. or.).
- 10-22/PES-00220. Galdera, Nafarroako Erresumaren omenezko monolitoaren kontserbazio egoerari buruzkoa. Francisco Pérez Arregui jaunak egin du (14. or.).
- 10-22/PES-00221. Galdera, Metabertsoa garatu duen enpresa hautatzeko irizpideei buruzko idatzizko galderari emandako erantzunean datorren baieztapenari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (15. or.).
- 10-22/PES-00222. Galdera, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartu diren zuzenketen betetze mailari eta egoeraren xehetasunari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (15. or.).
- 10-22/PES-00223. Galdera, menperakuntza kimikorako ziztadengatiko salaketei buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (16. or.).
- 10-22/PES-00224. Galdera, Nafarroan CNiako agenteak kentzeari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (17. or.).
- 10-22/PES-00225. Galdera, COVIDa hondakin-uretan detektatzearen inguruan Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin lankidetzan azterlanen bat egiteari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (17. or.).
- 10-22/PES-00226. Galdera, ziztadengatiko salaketei buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (18. or.).
- 10-22/PES-00227. Galdera, elkarlaneko etxebizitzetarako lurzatiak lagatzeari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (18. or.).
- 10-22/PES-00228. Galdera, etxebizitzak zaharberritzeko behin-behineko kalifikazio espedientei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (19. or.).
- 10-22/PES-00229. Galdera, Sodena, Albyn eta CENen artean maskarak erosteko akordioari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (20. or.).
- 10-22/PES-00230. Galdera, pandemiaren hasieratik gaur arte osasun alorreko materiala erosteko bitartekari gisa eta/edo edo hornitzaileak bilatzeko lanak egin dituzten entitate eta kontaktuei eta haien komisioidi buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (20. or.).
- 10-22/PES-00231. Galdera, Sodena, Albyn eta CENen artean erosteko akordioan erositako grafenoazko maskarek buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (21. or.).
- 10-22/PES-00232. Galdera, Sodena, Albyn eta CENen artean erosteko akordioaren inguruko maskarasoberakinei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (22. or.).
- 10-22/PES-00233. Galdera, 2022ko ekainaren 29an egindako kontu-hartzaitzaren txostenean, Efficold SA enpresari FFP2 maskarak erosteko espedienteari dagokionez, Kontu-hartzeko zuzendari nagusiaren iritzia aldatzeko arrazoiei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (23. or.).
- 10-22/PES-00234. Galdera, Nafarroako Gobernuaren baimenari buruzkoa, Sodena, Albyn Medical eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren arteko hitzarmenerako, 2020an osasun alorreko materiala erostearen inguruan. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (23. or.).
- 10-22/PES-00235. Galdera, Nafarroako Gobernuak erositako maskarek buruzkoa, konposizioan grafenoa edo grafeno-biomasa baldin badute. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (24. or.).
- 10-22/PES-00236. Galdera, Sodena, Albyn eta CENen arteko akordioaren esparruan Kontsumo Zerbitzuak erositako 2.000 maskara kirurgikoei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (25. or.).
- 10-22/PES-00237. Galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuak pandemiaren hasieratik erositako FFP2 maskaren eta maska kirurgikoen unitate-prezioari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (25. or.).
- 10-22/PES-00238. Galdera, Sodena, Albyn eta CENen arteko akordioaren esparruan Nafarroa Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak erositako 1.000 FFP2 maskaren banaketari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (26. or.).
- 10-22/PES-00239. Galdera, Emanzipa programaren adin-tartea zabaltzeari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (27. or.).

- 10-22/PES-00240. Galdera, Nafarroako 2021-2025 tarterako Teknologia eta Berrikuntza Planean sartutako ekintza guztien betearazpen tekniko zein aurrekontukoari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (27. or.).
- 10-22/PES-00241. Galdera, Aiegiko tiro-eremuaren ingurumen-baimenei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamari-que jaunak egin du (28. or.).
- 10-22/PES-00242. Galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenean soberan gelditutako maskarak biltegitratzeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (29. or.).
- 10-22/PES-00243. Galdera, Nafarroako Gobernuak maskaren balizko erosketetarako modu proaktiboan kontaktatu zituen enpresei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (30. or.).
- 10-22/PES-00244. Galdera, enpresek maskarak erosteko egindako eskaintzei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (30. or.).
- 10-22/PES-00245. Galdera, “Ospa Eguna” ospatzeari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (31. or.).
- 10-22/PES-00246. Galdera, Sodenaren Administrazio Kontseiluaren 2020ko urriaren 27ko aktari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (31. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko bi transkribatzaile-postu betetzekoa, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak. Haietako batek euskarako C1 hizkuntza-eskakizuna du. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (32. or.).

F saila:
GALDERAK

10-22/PES-00206. Galdera, Larrialdietako zuzendaria, Nafarroan ekainaren 15etik 29ra bitartean gertaturiko baso-suteetarako ekintzak koordinatzeko izendaturikoa, egon zen lekuari buruzkoa.*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko galdera, Larrialdietako zuzendaria, Nafarroan ekainaren 15etik 29ra bitartean gertaturiko baso-suteetarako ekintzak koordinatzeko izendaturikoa, egon zen lekuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioaren eledun den dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Fisikoki non egon zen larrialdietako zuzendaria, Nafarroan ekainaren 15etik 29ra bitartean gertaturiko baso-suteetarako ekintzak koordinatzeko izendaturikoa, hain zuzen?

Iruñean, 2022ko ekainaren 30ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

10-22/PES-00207. Galdera, Nafarroan ekainaren 15etik 29ra bitartean gertaturiko baso-suteei aurre egiteko laguntza logistikoko taldeari buruzkoa.*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroan ekainaren 15etik 29ra bitartean gertaturiko baso-suteei aurre egiteko laguntza logistikoko taldeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioaren eledun den dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zein egunetan abiarazi zen Nafarroan ekainaren 15etik 29ra bitartean gertaturiko baso-suteei aurre egiteko laguntza logistikoko taldea?

Nor ziren lantalde horren kide?

Fisikoki non egin zuten bilera?

Iruñean, 2022ko ekainaren 30ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

10-22/PES-00208. Galdera, Nafarroan ekainaren 15etik 29ra bitartean gertaturiko baso-suteen aurka egiteko aireko baliabideei buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroan ekainaren 15etik 29ra bitartean gertaturiko baso-suteen aurka egiteko aireko baliabideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioaren eledun den dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1. Ekainaren 15etik 29ra bitartean izandako baso-suteei aurre egiteko hegazkin eta helikopte-

roetako pilotuek zergatik joan behar izan zuten ura suteetatik urruneko tokietan hartzera, eta ez hurbilen zeuden urtegi edo putzuetan?

2. Putzuak une oro eduki al dira garbi, bai eta zeharo kokatuta eta georreferentziatuta?

3. Egia al da helikopteroetako pilotuek diotena, toki askotan alferrik bota zutela ura, lurrian ez zegoelako sua zeharo itzaltzeko brigadarik?

4. Medikudun helikopteroa egokituta al zegoen bambia garraiatu eta ura jaurtitzeko?

5. Egia al da ekainaren 18an, zeuden aurreikuspenak egonda, Nafarroa osoan sute-itzalketarako bi helikoptero besterik ez zegoela? Hala ez bazen, zenbat zeuden eskuragarri?

6. Egia al da Ministerioaren ATC hegazkina ekainaren 18an ez zegoela Nafarroan?

7. Egia al da ekainaren 18an zenbait orduz ez zela 112 aretoan inolako agintari teknikorik egon erabakirik hartzeko? Zenbat orduz ez zen egon kasuko agintaria?

Iruñean, 2022ko ekainaren 30ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

10-22/PES-00209. Galdera, baso-suteen aferan larrialdi-zerbitzuek dituzten ahuleziei buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko galdera, baso-suteen aferan larrialdi-zerbitzuek dituzten ahuleziei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioaren eledun den José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuaren ustez, zein dira baso-suteen aferan larrialdi-zerbitzuek dituzten ahuleziak?

Iruñean, 2022ko uztailaren 1ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

10-22/PES-00210. Galdera, larrialdiei begirako suhiltzaileen efektibo operatiboei eta errefortzuei buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko galdera, larrialdiei begirako suhiltzaileen efektibo operatiboei eta errefortzuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioaren eledun den José

Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1. Suhiltzaileen 471 kideetatik, zenbat dira benetan operatibo?

2. Larrialdi-maila baten alerta ematen denean, suhiltzaileen kidegoa inola indartzen al da? Nork abiarazi behar du indartze hori? Abiarazi al zen ekainaren 15etik 29ra bitartean? Zer datatan?

3. Ba al dago inolako biderik langileria horri alerta helarazteko, zerbitzuz kanpo dagoenean? Nork eman behar du alerta?

Iruñean, 2022ko uztailaren 1ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

10-22/PES-00211. Galdera, PLATENA ekainaren 15etik 17ra bitartean ez aktibatze erabakiari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko galdera, PLATENA ekainaren 15etik 17ra bitartean ez aktibatze erabakiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioaren eledun den José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

1. Zehazki nork erabaki zuen ez zegoela PLATENA ekainaren 15etik 17ra bitartean aktibatze beharrik?

2. Aktibatu beharra aztertu behintzat egin al zen? Nork eta zer egunetan?

3. Aztertu baldin bazen, zer arrazoiengatik baztertu zen ideia?

Iruñean, 2022ko uztailaren 1ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

10-22/PES-00212. Galdera, ekainaren 16ko 222/2016 Foru Aginduak aurreikusten dituen debekuak, ohar laranja mailarekin, Nafarroako Erdialdeko abiadura handiko trenerako obretan aplikatzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, ekainaren 16ko 222/2016 Foru Aginduak aurreikusten dituen debekuak, ohar laranja mailarekin, Nafarroako Erdialdeko abiadura handiko trenerako obretan aplikatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Landa Garapeneko Departamentuak edo aferaren arabera eskudun denak idatziz erantzun ditzan:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren uztailaren 1eko 152E/2022 Foru Aginduaren bidez, aldatu egin zen Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren ekainaren 16ko 222/2016 Foru Agindua, zeinaren bidez suaren erabilera arautzen baitzen lurzoru urbanizaezinerako, baso-suteak prebenitze aldera.

Aldaketen artean egon zen 10. artikuluko 5. apartatuari zegokiona, zeina honela idatzita geratu baitzen:

“5. Lurzoru urbanizaezinean makineria eta ekipamenduak erabiltzeko, beharrezkoa izanen da artikulu honen bigarren apartatuak mendiko piste-tatik ibiltzen diren ibilgailu motordunetarako ezar-tzen dituen betekizunak betetzea. Gainera, maki-neria astuna erabiltzen bada (bulldozerrak, atzerako hondeamakinak, motonibelagailuak, skidderrak, prozesagailuak eta baso-autokarga-tzaileak, sasi-garbitze makinak, uzta-biltze maki-nak, paketagailuak eta ziztailuak), makina bakoit-zak bi su-itzaltze motxila izan beharko ditu, haietako bakoitza gutxienez 15 litroko edukiera-koa, bai eta eskuzko lanabesak ere, hasi berritan dagoen su bati lehenbiziko erantzuna eman ahal izatekoak (sua jotzekoak, palak eta abar).

Lurzoru urbanizaezinean erabilitako ekipamen-du eta makineriatzat jotzen da edozein ekipamen-du motordun, zein den ere motorraren potentzia”.

Apartatu berriak ere gehitu ziren; zehazki, 8. apartatu berria, honako testua duena:

“8. Estatuko Meteorologia Agentziak 'muturreko tenperatura maximoak' eguraldi-alerta jaulkitzen duenean (ohar-maila: laranja edo gorria), debeku da artikulu honen 5. apartatuan aipaturiko makineria astuna erabiltzea eguraldi-alertak barne harturiko eskualdean, zeina foru agindu honen 4. eranskinak ezarritakoari jarraituz zehaztuko baita. Debeku hori eguraldi-alertak barne harturiko egu-netako bakoitzaren 00:00etatik 23:59ak arte apli-katuko da. Eguraldi-alerta hedabideetan eta Esta-tuko Meteorologia Agentziaren ohiko bideetan argitaratuko da. Horrez gain, nekazaritza-erakundeei berri emanen zaie.”

Nafarroako Erdialdeak zenbait egun daramatza laranja-mailan, tenperatura altuengatiko oharrekin. Aipatu Erdialdean, abiadura handiko tren eraiki-tzeko lanak egiten ari dira ezein agintarik inolako neurririk hartu gabe makineria astunaren erabile-rari dagokionez, nahiz eta 222/2016 Foru Agindu horrek eguraldi-egoera horretarako ezarri egiten dituen; batez ere, lehen islatutako 10. artikuluko 8. apartatuak modu absolutuan ezartzen duen debe-kua: “Estatuko Meteorologia Agentziak 'muturreko tenperatura maximoak' eguraldi-alerta jaulkitzen duenean (ohar-maila: laranja edo gorria), debeku

da artikulu honen 5. apartatuan aipaturiko maki-neria astuna erabiltzea”.

Hizpide ditugun lanak abian dira Azkoi-en-Erri-berri eta Alesbes-Azkoi-en azpitarteetan, “Zarago-za-Iruña abiadura handiko linea Nafarroan eraiki-tzeko proiektua”n. Tarteak: Castejón-Iruñerria. Lehenbiziko tarteak AZVI enpresari esleitu zitzaion, eta bigarrena, Obrascón Huarte Lain, SAri (OHL). Bi enpresa horiek, edo horien azpikontratak, dira aipaturiko 222/2016 Foru Legeak lurzoru urba-nizaezinerako zehazten dituen debekuak errespetatu gabe abian zeuden lanen erantzuleak.

Hori dena ikusita, honako galdera hauek egiten dira:

1.- Foruzaingoak edo Ingurumena Zaintzeko Atalak egin al diete Erdialdeko abiadura handiko trenerako obren esleipen-hartzaile diren enpresei errekerimendurik, geraraz dezaten 222/2016 Foru Aginduak, ekainaren 16koak, 10. artikuluko 5. apartatuan zerrendatzen duen makineria astuna erabiltzearekin zerikusia duen jarduera oro, eskualde horretarako ohar laranjak diraueino?

2.- Erantzuna ezezkoa bada, zer dela-eta ez da hartu neurririk ekainaren 16ko 222/2016 Foru Aginduaren 8. apartatuan ezarritako debekuak bete ez dituzten nekazarien aurka hartu direnak bezalakorik, haiei eragotziz aipatu makineria darabilen edozein jarduera egitea? Beharrezkoak diren neurriak hartuko al dira, berriz aldira AZVI eta Obrascón Huarte Lain, SA (OHL) enpresek edo haien azpikontratek beteko dituztela ekainaren 16ko 222/2016 Foru Aginduak lurzoru urbanizae-zinari dagokionez edozein jarduera-motatarako ezartzen dituen debekuak?

3.- Nork, edo zer kargudun politikok erabaki du Gobernuan ezen ekainaren 16ko 222/2016 Foru Aginduak, uztailaren 1eko 152E/2022 Foru Agin-duak eman zion testuarekin, lurzoru urbanizaezi-nean egiten diren jardueretarako ezartzen dituen debekuak ez direla aplikatzeko modukoak Erdial-dean sute-arriskuari buruzko ohar laranjak egonik egiten ari diren abiadura handiko trenerako obrei?

Iruñean, 2022ko uztailaren 18an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

10-22/PES-00213. Galdera, G30005 G3500 6013 467903 REACT. NASERTICi eginiko enkargua. Nafarroako banda zabal korporatiboaren plana PO FEDER 14-20 partidari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, G30005 G3500 6013 467903 REACT. NASERTICi eginiko enkargua. Nafarroako banda zabal korporatiboaren plana PO FEDER 14-20 partidari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu dio Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariari, idatziz erantzun dakion:

1.- Zer dela-eta murriztu da 1.000.000 euroan "G30005 G3500 6013 467903 REACT. NASERTICi eginiko enkargua. Nafarroako banda zabal korporatiboaren plana PO FEDER 14-20" partida, hasiera batean 2.900.000 euroko zuzkidura zeukana?

Iruñean, 2022ko uztailaren 22an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

10-22/PES-00214. Galdera, helikoptero medikalizatua mobilizatzearen inguruan egindako aldaketei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, helikoptero medikalizatua mobilizatzearen inguruan egindako aldaketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

1- Osasun Departamentuak inolako antolakuntza-aldaketarik egin al du helikoptero medikalizatua mobilizatzeari dagokionez? Zein?

2.- Aldaketa horien ordezko hautabide posiblei buruzko azterlanik ba al daukazu? Nork egina, eta zein egunetan?

3.- Osasun Departamentuak asmorik al dauka inolako antolakuntza-aldaketarik egiteko helikoptero medikalizatua mobilizatzeari eta/edo Nafarroako garraio sanitario urgenteari dagokionez? Zer aldaketa zehatz, eta zer kronogramarekin?

Iruñean, 2022ko uztailaren 27an.

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-22/PES-00215. Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzarako psikologoak kontratatzeari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzarako psikologoak kontratatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako

Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

1.- Legegintzaldi honetan zenbat psikologo kontratatu dira, Oinarrizko Osasun Laguntzarako iragarritako proiektuarekin alderatuta?

2.- Zein egunetan kontratatu da profesional bakoitza, zer osasun-etxetara izan da esleitua, zer osasun-etxeri dago organikoki eta funtzionalki lotuta?

3.- Psikologo kliniko ez den profesionalik kontratatu al da?

4.- Zein dira hurrengo urratsak proiektu honetan? Zehatz bitez beste osasun-barruti batzuetarako hedapenari buruzko aurreikuspenak eta kronograma.

5.- Ba al dago proiektuaren dokumentu estrategikorik? Zein datatakoa da?

6.- Ba al dago deribazio-protokolorik? Zer datatan jakinarazi dira, eta organizazioko zer profesionali?

Iruñean, 2022ko uztailaren 27an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-22/PES-00216. Galdera, Donezteben Arrizurriagako presak duen funtzionamenduari eta bertan uholdeak izatearekin duen loturari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Donezteben Arrizurriagako presak duen funtzionamenduari eta bertan uholdeak izatearekin duen loturari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko kide Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztzen dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu daitezten eta idatzizko erantzuna eman diezaien Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak.

Arrizurriagako presan (San Tiburtzio izenez ezagutzen dena, Doneztebe eta Sunbillaren artean kokatua) uhateek hainbat aldiz huts egin dute, ondorioz uholdeak gertatuta Bidasoako trenbide zaharrean zehar doan Bide Berdean, bai eta Donezteben ere. Doneztebeko udalerrian 2021eko bukaeran eta 2022ko hasieran pairatutako azken uholdeak adibide argiena izan ziren uhate horiek dakarten arriskuari begira.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuari honako galdera hauek aurkeztzen dizkiogu, idatziz erantzuteko:

1.- Nafarroako Gobernuak ezagutzen al du San Tiburtzio izenez ezagutzen den eta Iberdrola-

ren titulartasunekoa den presaren kontzesiorako espedientearen edukia, uhateak kontrolatzeko sistemari dagokionez? Izan ere, balizko uholdeen arriskua ekar dezakete, funtzionamendu okerra edukiz gero, eta horrek babes zibileko eskumenak ukitzen ditu, zeinaren titular bakarra Foru Gobernuua baita.

2.- Nafarroako Gobernuak espedientearen edukia ezagutzuz gero, uste al du presaren kontzesioa duen eta uhateen funtzionamenduari arduradun den enpresa, Iberdrola alegia, betetzen ari dela babes zibilaren gaineko araudi indarduna, euriteak edo ibaian goraldi handiak direnean uhateek duten ukipenari dagokionez?

3.- Nafarroako Gobernuak uste al du kontzesio-hartzaileak ez dituela bete azken hamar urteetan funtzionamenduko klausulak eta presa kudeatzeko araudia? Espedienterik bat ireki al da horregatik edo beste arrazoiengatik?

4.- Kontuan hartuta presako uhateen funtzionamendu egokiak zuzeneko lotura duela babes zibilarekin, ibaian goraldiak izan eta Donezteben uholdeak gertatzen diren kasuetan, Gobernuak azterlan edo txostenik egin al du aztertze aldera presak izan dezakeen eragina, Donezteben uholdeak gertatzeko arriskuari begira?

5.- Azterlan edo txostenik egon ezean, Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du horiek egitea neurtze aldera presak izan dezakeen eragina Donezteben uholdeak gertatzeko arriskuari begira?

6.- Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du, Doneztebeko udalerrian uholdeak izateko arriskuaren aurrean, larrialdi planean sartzea Arrizurriagako presako funtzionamendua eta hartan gerta daitezkeen anomaliak?

Iruñean, 2022ko uztailaren 29an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

10-22/PES-00217. Galdera, familientzako elkarguneei buruzkoa.*ISABEL ARANBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea familientzako elkarguneei buruz Isabel Aranburu Bergua andreak aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Isabel Aranburu Bergua andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Eskubide Sozialetako Departamentuak 2021eko uztailaren 3an jaulkitako prentsa-ohar

batean esaten zen ezen, haurren babeserako sistemako familia eta haurrentzako zenbait programa eta zerbitzutarako kontratu berriaren bitartez, Familia Elkartzeko bost Gune egonen zirela. “Horietatik 3 Iruñean egonen dira kokatuta; hots, gaur egun baino bat gehiago, familia-harrerako programarako berariazkoa izanen dena. Beste biak, Tafallan eta Tuteran”.

Gai horri buruz, talde honek honako galdera hauek aurkeztu ditu:

- Ea gauzatu al den Iruñean kokatzeko zen gune berriaren ezarpena.

- Zein da departamentuaren irizpidea Nafarroan Familia Elkartzeko Gune berriak sortzearen beharrari eta egokitasunari buruz, arrazoi horietan izaki irizpide horren oinarria, eta zer aurreikuspen dabil horri buruz?

- Zer iritzi dauka Lizarran Familia Elkartzeko Gune bat egotearen beharrari eta egokitasunari buruz, Parlamentuak onetsitakoaren ildotik, eta, eta berean, zer arrazoitan oinarritzen da iritzi hori?

Iruñean, 2022ko abuztuaren 1ean

Foru parlamentaria: Isabel Aranburu Bergua

10-22/PES-00218. Galdera, Euskararen II. Plan Estrategikoaren abiarazpenaren atzerapenari buruzkoa.*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, Euskararen II. Plan Estrategikoaren abiarazpenaren atzerapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, eskatzen du Nafarroako Gobernuak honako galdera honi idatziz erantzun diezaion:

Aurreko legegintzaldian, Euskararen Plan Estrategikoa abian jartzearekin batera, Nafarroako Gobernuaren departamentuek hizkuntza planak egiteko prozedurari ekin zioten. Gobernu berria osatzearen ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen egitura berria ezarri zen Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariak abuztuaren 6an emandako 22/2019 Foru Dekretuaren bidez. Hori dela eta, berriro ekin zitzaion hizkuntza planak egiteari eta dagoeneko departamentu guztietako planak ikusgai daude Gobernu Irekiaren atalean.

Azaroan Chivite presidentek Nafarroaren Egoeraren inguruko Etabaidan iragarri zituen

neurri edo egitasmoen artean batek poztu gintuen bereziki: departamentuetako hizkuntza planak amaitzeaz zeudela eta 2022ko lehen hiruhilekoa bukatzerako funtzio publikoko mahai orokorrera eramango zirela, bertan onartu eta martxan jartzeko.

Abuztuaren gaude dagoeneko eta momentuz, presidentek esandakoa ez da bete. Horrexegatik galdetzen diogu Gobernuari:

– Zergatik ari da planen onarpena horrenbeste atzeratzen?

– Zehaztuta al dago departamentu guztietan plantilla organikoan lanpostu elebidunak zein izanen diren? Zein izanen da aldea orain artekoekin?

– Noiz eramango dira planak funtzio publikoko mahai orokorrera?

Iruñean, 2022ko abuztuaren 3an

Foru parlamentari: Bakartxo Ruiz Jaso

10-22/PES-00219. Galdera, Osasun Batzordean, minbizia duten haurrentzako arretaren inguruan onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, Osasun Batzordean, minbizia duten haurrentzako arretaren inguruan onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

ADANO elkartearen ekimenez, joan den otsailaren 2an mozio bat eztabaidatu zen Osasun Batzordean, minbizia duten haurrentzako arretari buruzkoa. Honako erabaki hau onetsi zen:

1.- Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroan lege ezarritako gaixotasun larri bat edo minbizia duen beren kargurako adingabe bat modu zuzen, jarraitu eta iraunkorrean zaintze aldera lanaldia eta soldata murrizten duten gurasoek, adoptatzaileek edo harrera-egileek pairatzen duten diru-sarreraren galera konpentsatzeko sorospena alda dezan eta, horrenbestez, Opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua onesten duen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretua alda dezan, tarteak % 50etik % 99ra bitarte igotzeko.

2.- Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroan minbizia duten neska-mutikoen aldi baterako desgaitasuna onar dezan eta Diputatuen Kongresuak 2017an onetsitako lege besteko proposamena aplikatu dezan Nafarroan –horren

arabera, minbizia duten haur eta nerabeei % 33ko desgaitasuna aitortzen zaie diagnostikoa egiten den unetik beretik, 0tik 14 urtera bitarteko adingabeek eta haien familiek laguntzak eta zerbitzuak jaso ahal izan ditzaten.

3.- Nafarroako Gobernua premiatzen da 2. puntuan adierazitako desgaitasuna onar dezan eta onarpen hori urrutetik egin dadin, minbizia duen neska-mutikoak zentro nagusira joan behar izan gabe.

4.- Nafarroako Gobernua premiatzen da PADI-Haurren Hortzetako Osasun Laguntzaren Progra-

man sar daitezen txantxarrak, lehen hortzaldiko hortz-erazketa aurreratu gabeak eta minbizia duten bigarren hortzaldiko haur nafarren hortz-protesiak.

– Sei hilabete igarota, neurri horietako bakoitzak zer betetze-maila dauka?

– Ez badira bete, zein da Osasun Departamentuaren asmoa, bai eta aurreikusitako kronograma ere?

Iruñean, 2022ko abuztuaren 3an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

10-22/PES-00220. Galdera, Nafarroako Erresumaren omenezko monolitoaren kontserbazio egoerari buruzkoa.

FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Erresumaren omenezko monolitoaren kontserbazio egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Francisco Pérez Arregui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak idatziz erantzun dezan:

2016ko abenduaren 3an Nafarroako Gobernuko lehendakariak Nafarroako Erresumaren omenezko monolito bat inauguratu zuen Nafarroako errege eta erreginen jauregi izan zeneko harresien ondoan. Aipatu monolitoa kontserbazio egoera negargarrian dago, hura inauguratu eta urte gutxitara.

Nafarroako Gobernuak aipatu eremu hori garbi eta txukun mantenduko al du?

Noiz egingen du?

Iruñean, 2022ko abuztuaren 5ean

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui

10-22/PES-00221. Galdera, Metabertsoa garatu duen enpresa hautatzeko irizpideei buruzko idatzizko galderari emandako erantzunean datorren baieztapenari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, Metabertsoa garatu duen enpresa hautatzeko irizpideei buruzko idatzizko galderari emandako erantzunean datorren baieztapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen

Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu dio Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariari, idatziz erantzun dakion:

10-22/PES-00199 galdera idatziari emandako erantzuneko lehen puntuak honela dio, hitzez hitz: "Une horretan, enpresa hori zen arlo horretan esperientzia eta bezeroak zituen bakarra eta, beraz, bermearekin jarduten zuena".

1.- Zer oinarri du baieztapen horrek?

2.- Zer egiaztapen egin zuen Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak ondorio horretara iristeko?

Iruñean, 2022ko abuztuaren 8an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

10-22/PES-00222. Galdera, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartu diren zuzenketen betetze mailari eta egoeraren xehetasunari buruzkoa.

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartu diren zuzenketen betetze mailari eta egoeraren xehetasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zein dira betetze maila eta egoeraren xehetasuna orain arte kultura eta kirolaren arloan onetsi diren eta Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartu diren zuzenketei dagokienez?

Iruñean, 2022ko abuztuaren 12an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

10-22/PES-00223. Galdera, menperakuntza kimikorako ziztadengatiko salaketi buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko galdera, menperakuntza kimikorako ziztadengatiko salaketi buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaioten:

Zenbat salaketa izan dira orain arte Nafarroan, menperakuntza kimikorako ziztadengatik?

Zein da salatzaileen adina?

Balizko egileren bat identifikatu al da?

Zer ondorio izan dute salatzaileei egindako analisi medikoek?

Medikuek zenbat kasutan egiaztatu zuten ziztadak egotea?

Nafarroako Gobernuak jarraibideren bat eman dio Foruzaingoari kasu horiek ikertzeko?

Poliziako arduradunekin bildu al da haien iritzia ezagutzeko?

Zer hipotesi darabilte Nafarroako Gobernuak eta Foruzaingoak eraso-olatu hori azaltzeko?

Informazioa partekatu edo alderatu al da Gobernuaren ordezkariarekin edo beste autonomia-erkidegoekin?

Iruñean, 2022ko abuztuaren 8an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

10-22/PES-00224. Galdera, Nafarroan CNiko agenteak kentzeari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroan CNiko agenteak kentzeari buruz Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaien:

Gobernuaren ordezkariak informazioaren bat helarazi al dio Nafarroako Gobernuari Nafarroan CNiko agenteak kentzeari buruz?

Zenbat agente kendu da gure Erkidegoan?

Zergatik?

Gobernuak baloraziorik egiten al du gai horri buruz?

Iruñean, 2022ko abuztuaren 8an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

10-22/PES-00225. Galdera, COVIDa hondakin-uretan detektatzearen inguruan Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin lankidetzan azterlanen bat egiteari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, COVIDa hondakin-uretan detektatzearen inguruan Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin lankidetzan azterlanen bat egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak azterlanen bat egin al du Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin lankidetzan, edo hari eskatu edo finantzatu aipatu azterlana, COVIDa hondakin-uretan detektatzearen inguruan?

Baiezkoan, zehaztu zer azterlan, zer kostu ekarri dion Nafarroako Gobernuari eta zer ondorio atera den.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 8an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

